

Getxo >MEETING<

Irailak 22

Urte honetarako joerak

Zerbitzuei, produktuei, baliabide digitalei, formatuei eta beste gai batzuei buruz modan dauden gaiak aztertuko ditugu. Egunean egoteko eta gure negozioekin egokitzeko (betiere baldin eta gure komunikazio-helburuekin bat badator, noski).

Urriak 6

Negozioak dibertsifikatzea edo espezializatzea

Hausnarketa horren erantzuna desberdina izango da enpresa bakoitzaren unearen edo une profesionalaren arabera.

Urriak 20

Webgunea aldatzea planteatu duzu, baina...

Webgunea aldatzeak dena birplanteatzea izango du ondorio. Hori dela eta, saio honetan giltzarri izango diren tresnak eta galderak eskuratuko dituzu. Datorren lana arintzeko. Baliagarria izango da ere jada testuak idatzita dituzten baina iritzia behar dutenentzat.

Azaroak 3

Zure sustapenerako ekitaldi propioa antolatu

Urratsez urrats egingo dugu lan, zure enpresa sustatzeko ekintza bat antolatu ahal izan dezazun, bakarka edo beste negozio batzuekin lankidetzan. Aurretiko ideiarik ez baduzu ere, etorri zaitezke, zerotik abiatuko baikara. Hobeto esanda, erakarri nahi dituzun hartzaileetatik abiatuko gara.

Azaroak 17

Ireki liburua, ireki mentalitatea!

RKEko liburutegian egingo da saioa; enpresa bakoitzak garatu behar duen ideia bat ekarriko du, eta liburu jakin batzuk erabiliko ditugu gure ideien jarioa eta sormena zabaltzeko.

Abenduak 1

Nire eta besteen akatsetatik ikasi dudak guztia

Akatsei errepassoa eta akats txikiak nahiz handiak komunean jartzea. Alde batetik, ikusteko ea zer gertatu zen akats hura gertatzeko. Bestetik, serendipia zer den ulertzeko. Izan ere, batzuetan espero ez duzun horrek zure hasierako jomuga baino hobea den toki batera eraman zaitzake.

Abenduak 15

2022ko balantzea

Zure enpresa propioa baduzu, norekin eta nola egiten duzu urteko balantzea? Izan ere, enpresa ez dira soilik zenbakiak. Perspektiba hartu eta sarri ustekabeen igarotzen diren lorpenei erreparatzeko lan-saioa duzu hau.